

Eider Goenaga Beasain

Beasaingo alkate da Aitor Aldasoro jeltzalea (Beasain, 1967) joan den ekainaz geroztik. Sasieta mankomunitatean Beasain ordezkatu zuen aurreko agintaldian, eta lehendakaria da orain. «Kezkakuta» dago mankomunitateak duen 1,65 milioi euroko zorrarekin, eta EH Bilduren kudeaketa txarrari egotzi dio horren erantzukizuna. Sasieta zabortegia irekitzeko lan batzuk egin behar zirela eta lan horiek egin gabe EH Bilduk utzi dituela dio.

Sasieta mankomunitateak 1,6 milioi euroko zuloa du. EH Bilduk dio EAJk eta PSE-EEK hautsi duzuela Sasieta eta GHKren arteko hitzarmena, eta horren ondorio dela zorra. Zuk EH Bilduri egotzen diozu ardura...

Orain agertu den zuloa 90 minutuko partida baten azkeneko segundoa baino ez da. Partidaren hasiera 2011ko maiatzaren 5ean kokatuko nuke, Eusko Jaurriartzak Sasieta zabortegiari buruzko Ingurumen Baimen Batearatu bidali zuenean. Baldintza batzuk jarri zizkion zabortegiari, irekita jarraitzeko.

Hala, 2014ko abendura iritsi ginen, eta orduan Azeari Andonegi (EH Bildu) mankomunitateko lehendakariak esan zigun zabortegia behin-behinean itxi behar zela, auditoria bat zetorrelako. Baina zer egin zuten denbora horretan guztian? Guk dakigula, ezer ez; 2011ko egoera berean gaude.

Zeintzuk ziren baldintzak?

Kontua da Sasieta zabortegia edalontzi forma duen zulo bat dela, eta %90ean beteta dagoela. Irekita jarraitzeko, inpermeabilizatu egin behar da, baina aurretik zaborretatik sortutako lohiak estabilitatu behar dira. Guri teknikoei esaten digute 8-10 hilabete eta 1,7 milioi euro behar direla lohien tratamendurako, eta kalkulatu dute inpermeabilizazioa beste hiru milioi izango direla.

Proiektu bat egin eta adjudikatzeak, azkar joanda ere, hiruzpatalu hilabete behar dira. Horri lohien tratamenduaren 8-10 hilabete gehituta, 12-14 hilabetetan jartzen gara, eta gero inpermeabilizazio lanak egin behar dira.

Zuk diozu, beraz, zabortegia otsailen itxita ezinezkoa zela urrian irekitzea.

Egin kontuak. Zabortegia otsailen itxita, aurreikuspen baikorrenek ere ez zuten ematen urrian irekitzeko. Eta horren ondorioz dugu orain 1,6 milioi euroko zorra, 2015eko aurrekontuetan aurreikusitako zutelako urrian irekiko zela. Argi dago ezinezkoa zela.



LOINAZ AGIRRE / HITZA

«Zabortegia ireki nahi bazuten, aurretik egin behar zituzten lanak»

Aitor Aldasoro • Beasaingo alkate eta Sasieta zabortegiaren lehendakaria

Sasieta mankomunitateak duen 1,6 milioi euroko zorra EH Bilduren ardura dela dio Aldasorok, eta ez ditu EAJ eta PSE-EE horren erantzule egiten. 2011tik arazoa konpontzeko denbora egon dela uste du.

Data hori GHK-ko teknikariak eman zirela dio Andonegik.

Teknikariak nahi dutena esango dute, baina horren erantzulea zu zara, eta ez EAJ eta PSE-EE... Zabortegia ireki nahi zutela? Ados, baina lanak aurretik egin behar zituzten, ez inori bota errua.

Zer gertatu da Sasieta GHKren egindako hitzarmenarekin?

Nik esango dizut Sasieta lehendakariak iritsi naizenean ez dudala aurkitu ez proiektu bat, ez adjudikazio bat... ez dago ezer. Gainera, behin zabortegia itxita, bi urteko gehieneko epea duzu berriro irekitzeko. 2017ko otsailera ireki nahiko bagenu ere, Sasieta teknikariak esan digutenez eta lehen aipatu dizkizudan hilabete kontuekin, ez gara iristen.

Zure ustez, beraz, aurrekontuan jaso zuten urrian irekiko zela, nahiz eta jakin ezinezkoa zela?

Kontua da hori tartean hauteskundeak zeudela, eta zabortegia

ireki ezean udalen ekarpena %53 igo behar zela. Noski, joan zu hauteskunde urte batean eta esan herriarrei halako igoera bat egin behar duzula! Beraz, fardela hurrengoari pasatu zioten.

Eta orain ateratzen dira hitzarmenaren kontuarekin. 2014ko

«Zabortegia otsailen itxita, aurreikuspen baikorrenek ere ez zuten ematen urrian irekitzeko; orain zor dugu»

abenduko batzarrean aurkeztu zituzten guri hitzarmen hori, eta Sasieta ordezkari ginen EAJko bi kideak agerraldia egin genuen gaiari buruz. Esan genuen buru-gabekeria bat zela; batetik, bage-nekiak ez zirela epeak beteko, eta, bestetik, hitzarmena batzarreko kideei eman eta unean bertan egin zutelako aurrekontuen bozketan, hura aztertze denborarik eman gabe. Aterapena es-

katu eta onartu ez zigutenez, guk alde egin genuen batzarretik.

EH Bilduk dio klausula bat ere bazuela hitzarmenak; zabortegia irekiko ez balitz, GHK-k dirua aurreratuko lukeela.

Bai, klausula maiatzaren 14koa da; justu hauteskundeak baino lehen aurkeztu zuten batzarrean. Nik uste dut, lanak betetzen ari ez zirenez, klausula hori gehitu ziotela, baina arazoa da sinatu gabe utzi zutela. Erabakia batzar batek hartu zenez, sinatu beharra zeukaten, eta ez zuten egin.

Ni Sasieta lehendakari izendatu eta lehenengo gauza GHKra joatea izan zen, diru eske. Eta han esan zidaten klausulak ez zuela baliorik, sinatu gabe zegoela. Guk hautsi dugula hitzarmena? Baina ze hitzarmen?

Eta beste hitzarmena, zabortegia irekiko zela zioena?

Hori aurreko batzarrean bertan behera utzi genuen. Baina aho batez hartu zen erabakia, EH Bilduko ordezkariak ere bai.

Ardurak ardura, 1,6 milioi euroko zuloa ireki behar diozue.

Likidez arazoa dute udalak. Ur-tarrilean balitz, inbertsioetatik den deza kezka diru hori, baina urrian beranduegi da. Kontua da udal batzuek ezin dutela ordaindu, eta hori azaldu zuten asteleheneko batzarrean. Orduan, beste herri batzuek esan zuten «edo denek jartzen dugu, edo guk ere ez dugu jarriko»... Eta horrela gaude. Hamabost egunera batzarra egingo dugu berriz, eta tartean herri herri aztertuko dugu zein den egoera. Bestetik, mankomunitateak 20 urtean aurreratu gaituzten, milioi bat euro, kolpe batean jango dugu. Eta hori izugarria da.

Horrek guztiak ekarriko duena da zerbitzu okerrago bat, eta gastua erabat gutxitzea.

Horrekin esan nahi duzu atez atekoa kendu behar dela?

Ez, hori udalen eskumena da, eta udal bakoitzaren erabakia errespetatuko da. Orain, herri bakoitzak ikusi beharko du bilketa sisteman egokitzapen edo murrizketarik egin behar duen.

Zabortegia ez irekitzea erabakia duzue jada?

Hurrengo erabaki potoloa hori izango da. Baina gu aurka gaude. Batetik, epeak ez dutelako ematen. Bestetik, ez zaigulako iruditzen urtebeterako bost milioi euro zahutzea logikoa denik. Zerbait iraunkorragoa behar da; Gipuzkoan zaborrekin dugun arazoaren konponbidea ez da urtebetean iritsiko, ibilbide luzeagoko zabortegi bat behar du.

GHK-ko lehendakariorde izendatu zaituzte; zein da errauste plantarekin duzun asmoa?

Markel Olanok argi esan du, eta aurrez ere esan zen, baina gainera nik pertsonalki uste dut horrelako planta bat ezinbestekoa dela. Egin beharko da modernoa, neurritarua, baina soluzio bat behar da. Horrek ez du kentzen ahal den gehiena bereiztea; baina gelditzen den errefusarekin zer egin behar da? Nik uste dut erabaki bat hartu beharra dagoela, eta gure erabakia garbi dago zein den; hortik jo beharra dago.

Zubietan joango litzateke?

Bai eraginkortasun aldetik eta bai ingurumen aldetik, zabor gehien sortzen den tokian egin behar dela uste dut. Zaborrez betetako kamioiak batetik bestera ibili beharrean, sortzen den tokitik gertu egitea litzateke logikoa. Eta, Gipuzkoan, Donostian eta haren inguruan sortzen den zabor gehien.